

## **INSTITUTO VASCO DE CRIMINOLOGÍA-KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUAREN ARAUTEGIA**

Oharra: behean jasota dago UPV/EHUko Unibertsitateko Ikerketa Institutuen oinarritzko arautegiaren testu bateratua, ondokoen bidez onartua eta osatua:

- UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko uztailaren 19an onartua (Unibertsitateko Ikerketa Institutuen oinarritzko arautegia, 2012ko abuztuaren 27ko EHAA, 166. zk.), eta
- osatua IVAC-KREIren xedapen zehatzen bidez (UPV/EHUko idazkari nagusiaren erabakia, 2013ko urtarrilaren 16koa, horren bidez onartu baitzen Unibertsitateko Ikerketa Institutuen oinarritzko arautegia eta EHAAn argitaratzeko agindua eman, 2012ko abenduaren 20an Gobernu Kontseiluan aurkeztu ondoren (2013ko otsailaren 1eko EHAA, 23. zk.))

Irakurketa errazteko asmoz, 2013ko otsailaren 16ko erabakian jasotako xedapenak letra etzanez jarri ditugu.

### **LEHENENGO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.– Definizioa.

Unibertsitateko ikerketa institutuak zientziaren, teknikaren eta giza zientzien alorreko ikerketan eta arte sorkuntzan dihardute; gainera, ikasketa espezializatu eta graduondoko ikastaroetako irakaskuntza lanak egin daitezke institutuotan. Halaber, institutuak aholkularitza tekniko emango dute beren eskumeneko esparruan.

2. artikulua.– Unibertsitateko ikerketa institutuak: motak.

Unibertsitateko ikerketa institutuak hiru motatakoak izan daitezke:

- a) UPV/EHUrenak berarenak. UPV/EHUK berak bultzatuak. Institutu hauek guztiz txertatuta daude UPV/EHUren egituran.
- b) Atxikiak. Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen mendekoak dira, baina UPV/EHUrekin lankidetzak hitzarmena sinatua dute. Hitzarmenean jasota egon behar da nola gauzatuko den lankidetzak.
- c) Mistoak. Hitzarmen bidez beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan sortutakoak. Hitzarmenean jasota ageriko da institutua erakunde bien mende dagoela, eta institutuaren arautegia ere jaso behar da.

### **BIGARREN TITULUA UNIBERTSITATEAREN BERAREN IKERKETA INSTITUTUAK I. KAPITULUA EGINKIZUNAK, PRINTZIPIOAK, ARAUBIDEA ETA EGOITZA**

3. artikulua.– Eginkizunak.

Honako hauek dira unibertsitatearen beraren ikerketa institutuen eginkizunak:

- a) Ikerketa eta zientziaren arloko berrikuntza bultzatzea.
- b) Graduondoko ikasketak antolatu eta garatzea, bai eta berezko tituluak edo espezializazio bideratutako beste ikasketa batzuk ere.
- c) Estatuetako 97. artikuluan jasotako jarduerak garatzea.
- d) Beren artean edo UPV/EHUko eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuetako ikastegiekin eta sailekin lankidetzan jardutea, irakaskuntza eta ikerlanak egiteko.
- e) UPV/EHUko gainerako organoei eginkizunak betetzen laguntzea.
- f) Berezko tituluak eta unibertsitateko beste ikasketa batzuk ezartzeko ekimena izatea, bai eta espezializazio programak eta bizitza osoko prestakuntza ere.

g) Jardueren memoria egitea urtero, unibertsitateko ikerketa institutuko irakasleek eta ikertzaileek egindako ikerlana ebaluatu ahal izateko modu horretara.

1. artikulua.– Definizioa: egitekoa, printzipioak eta balioak.

1.– Kriminologiaren Euskal Institutua (KREI) Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Unibertsitateko Ikerketa Institutua da, eta hortaz, guztiz barneratuta dago EHUko antolamenduan, eta autonomia du. Kriminologiaren Euskal Institutuaren jarduera erregimena eta erabakiak Araudi honek eraenduko ditu, eta era berean, EHUko Estatutueta, Oinarrizko Araudian eta aplikatu beharreko gainerako arauetan aurreikusitakoa bete beharko da.

2.– Kriminologiaren Nazioarteko Elkarteari lotuta dago. Elkarre hori Nazio Batuen Erakundearen aholku organoa da, eta lehentasunezko jarduera gisa ikerketa eta heziketa espezializatua eta diziplina arteko heziketa espezializatua (hirugarren zikloko heziketa eta kriminologia eta biktimologia zientzietako doktoretza, hain zuzen ere) ditu.

3.– Proiektuak lantzen ditu, Europan bere presentzia bultzatuz, baita nazioarteko sareetako integrazioa ere, eta bestalde, erreferente izan nahi du ikerketa eta irakaskuntza bikaintasunagatik eta gizarteari zerbitzua emateko bokazioagatik. Institutuaren jarduerak honako printzipio hauei jarraitzen die:

- Errealitatea ezagutzea.
- Diziplina anitzeko integrazioa.
- Bikaintasuna bilatzea.
- Gizarteari zerbitzua ematea.
- Europa eta nazioarte mailako dimentsioa.

4.– KREIren jarduera inspiratzen duten balioak dira:

- Askatasuna eta aniztasuna.
- Begirunea eta elkarrizketa.
- Berrikuntza eta aurrerabidea.

Eta hori guztia Zientzia pertsonen, justizia sozialaren eta bakearen zerbitzura jartzearen lan eginez.

4. artikulua.– Printzipioak eta araubidea.

1.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutuek honako printzipio hauek egokitu behar dituzte egitura eta funtzionamendua:

- a) Unibertsitateko kide anitzeko eta kide bakarreko organo orokorreari men egitea.
- b) Kide anitzeko organoak kide bakarrekoen aldean nagusi izatea institutuan.
- c) Antolatzeko ahalmena eta funtzionatzeko autonomia izatea, indarrean dagoen legeriaren esparruan.

2.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutuak honako hauei jarraiki arautuko dira: indarreko legeria, Estatutuak eta oinarrizko arautegi honetako xedapenak. Oinarrizko arautegi honek gutxieneko arauak jasotzen ditu eta UPV/EHUren beraren ikerketa institutu guztiei aplikatuko zaie.

3.–?Aipatutako arautegietan jasotakoez gain, unibertsitatearen beraren ikerketa institutuek osatu egin ahalko dituzte arautegi honetako xedapenak, bertan adierazitako kasuetan eta moduan, institutu bakoitzaren arautegiaren bitartez.

4.– Gobernu Kontseiluak onartuko du, behin betiko, horietako bakoitzaren arautegia, legeak agintzen duen legezotasun txostena egin eta gero. Idazkari nagusiak, eskumenak eskuordetuta, arautegi horiek onartuko ditu, betiere txosten guztiak aldekoak badira eta inork eskatu ez badu Gobernu Kontseiluan aurkezteko. Honako hauek dute hori eskatzeko eskubidea: Gobernu Kontseiluko kideek; arautegiak eragin egiten diela uste duten sailtako edo

institutuetakoko kontseiluek; eta kasuan kasuko institutuko kideen % 15ek, gutxienez. Edozelan ere, onespen horren berri eman beharko zaio Gobernu Kontseiluari.

5. artikulua.– Institutuaren egoitza.

1.– Arautegian zehaztuko da unibertsitatearen beraren ikerketa institutuak non daukan egoitza. Egoitza horrek bakarria izan behar du, baldin eta Gobernu Kontseiluak bestelakorik baimentzen ez badu.

*2. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 5.1 artikulua zehaztapena*

*1.– UPV/EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC-KREI) Carlos Santamaria Zentroan dauka egoitza (Elhuyar plaza 2, 20018 Donostia).*

2.– Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da egoitza aldatzeko. Aldaketa Institutuko Kontseiluak proposatu beharko du, institutuko arautegian adierazitako moduan.

## II. KAPITULUA. INSTITUTUAK SORTU, ALDATU ETA KENTZEA

6. artikulua.– Sorrera.

1.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutuak indarreko legerian adierazitako moduan sortuko dira, Gobernu Kontseiluak iritzia eman ondoren.

2.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutua sortzeko proposamenarekin batera horretarako arazoak agertzen dituen memoria aurkeztuko da. Aplikatu beharreko legeriak xedatutako baldintzez gain, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira gutxienez:

a) Institutuaren helburuak, premia zientifikoa eta garrantzi soziala.

b) Institutuko ikerketa ildoak eta irakaskuntza lanak, lortu nahi diren helburu zientifikoak UPV/EHU dagoeneko sortuta dagoen egituraren baten bidez zergatik ezin diren lortu azalduta.

c) Beharrezkoak diren langileen eta baliabideen ebaluazio ekonomikoa, eta diru sarreraren eta funtzionamendu gastuen kalkulua.

d) Hasiera batean unibertsitateko ikerketa institutuari atxikiko zaizkion irakasleak eta ikertzaileak eta bakoitzaren ikerketa merezimenduak, institutua sortu beharra arrazoitzen dutenak.

e) Unibertsitateko ikerketa institutuaren behin-behineko arautegia.

3.– Honako baldintza hauek bete behar dira institutua sortzeko:

a) Ikertzaile gaitasun eta ikerketa ildo egiaztatuak dauzkaten ikertaldeak egotea lehendik.

b) Unibertsitatekanpoko ebaluazio batean ekimenak kalitate bikaina egiaztatuta izatea.

c) Institutuak izango duen aztergaiak interes estrategikoa izatea.

d) Ohiko diru laguntzaz gain, baliabide ekonomikoak izatea, erakunde publikoekin zein pribatuekin sinatutako kontratuei eta ikerketa proiektuei esker.

e) Sortu nahi den institutuaren bidez lortu nahi diren helburu zientifikoak unibertsitateko sailen baten bidez zergatik ezin diren lortu azaltzea.

4.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutuak sortzeko proposamenak Gobernu Kontseiluak onartu behar ditu lehenik eta behin, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak aldeko txostena egin ostean.

5.– Gobernu Kontseiluak erabakia hartu aurretik, argitara emango da unibertsitateko ikerketa institutua sortzeko proposamena eta hilabete egongo da ikusgai, ikastegiak, sailek, institutuak eta unibertsitateko gainerako egiturek iradokizunak egin ditzaten.

Institutuaren sustatzaileek iradokizun horiei emandako erantzunak sorrera espedienteari gehituko zaizkio.

6.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutua sortzeko proposamenaren hasierako onepenarekin batera, hasierako oinarrizko funtzionamendua finantzatzeko konpromisoa hartu beharko da, dela kanpoko diruaz dela UPV/EHUren aurrekontuez.

7. artikulua.– Institutua aldatu edo kentzea.

1.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutuak aldatu edo kentzeko erabakia aplikatu beharreko legeriari jarraituz hartuko da, eta Gobernu Kontseiluak iritzia eman ondoren. Institutuaren iritzia ere izan beharko da kontuan institutua aldatu edo kentzeko erabakia hartzean.

2.– Institutua kendu edo aldatzeko proposamenarekin batera horretarako arrazoiak azaltzen dituen memoria aurkeztuko da. Era berean, neurri horrek eragingo liekeen ikasketa edo ikerketa jarduerak nora aldatuko lirakekeen zehaztuko da, eta zeri atxikita geratuko lirakekeen kasuan kasuko langile eta baliabideak.

3.– Institutu bat kentzeko espedienteari gobernu taldeak ekingo dio bere kabuz, UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak ebaluazio negatiboa egin badu institutuaren urteko memoriaz, eta halakoetan nahitaez egin beharreko kanpoko txostenak hori egitea aholkatzen badu, dela institutuak jardunik izan ez duelako, institutua sortzea justifikatu zuten arrazoi zientifikoak desagertu egin direlako, edota institutua sortzeko behar izan zen kide kopurua nabarmen jaitsi delako bi ikasturtean baino gehiagotan.

4.– Aurreko atalean adierazitakoa gertatzen bada, arloan eskumenak dituen gobernu taldeko organoak institutuari entzun behar dio, bai eta hura kentzeak eragingo dien ikastegiei eta sailei ere, halakorik badago. Ondoren, institutua kentzea arrazoitzen duen memoria egin beharko du, eta honako hauek azaldu bertan:

a) Institutua kentzeko arrazoiak.

b) Institutua kentzeak ekarriko lituzkeen ondorioen azterketa.

c) Kendu beharreko institutuko langileak eta baliabideak berriro atxikitzeko programa, beharrezkoa izanez gero.

5.– Institutuak berak eskatzen badu institutua kentzeko espedienteari ekitea, aurreko atalean aipatutako memoria egin beharko du, bai eta azken bost urteetako balantze ekonomiko osoa ere.

6.– Organo eskudunak ikerketa institutua kentzeko eskaria egitea erabakitzen badu, bertako jarduna eten egingo da, kautelazko neurri moduan, institutua behin betiko desagertu artean.

8. artikulua.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutuak sortzeko gutxienez behar diren irakasle eta ikertzaileak.

1.– Unibertsitatearen beraren unibertsitate institutuek, sortu ahal izateko, gutxienez 15 kide doktore izan beharko dituzte, UPV/EHUko irakasle edo ikertzaile iraunkorrek izan beharko direnak.

2.– Unibertsitateko ikerketa institutuek, behin sortuta, ez badituzte betetzen xedatutako baldintzak unean unekoak ez diren bat-bateko arrazoiaren ondorioz, hiru urteko epea izango dute egoera zuzentzeko. Epe hori hasiko da arloan eskumenak dituen gobernu taldeko kideak institutuari bere egoera jakinarazten dion unean bertan. Epea amaitu ondoren, Gobernu Kontseiluak beharrezko neurriak hartu beharko ditu. Horretarako, institutuari eta bertan parte hartzen duten sailei entzun beharko die alde zuzenetik.

### **III. KAPITULUA. UNIBERTSITATEAREN BERAREN IKERKETA INSTITUTUETAKO KIDEAK**

9. artikulua.– Definizioa.

1.– Honako hauek dira unibertsitatearen beraren ikerketa institutuetaiko kideak:

- a) Institutuan ari diren irakasle eta ikertzaile doktoreak.
- b) Institutuan prestatze bidean dauden ikertzaileak.
- c) Institutuaren diruaz ordaindutako ikertzaileak.
- d) Institutuari atxikitako administrazio eta zerbitzuetako langileak edo bere diruaz kontratatutakoak.
- e) Institutuak irakasten dituen graduondoko ikastaroetan edo espezializaziora bideratutako ikasketetan ari diren ikasleen ordezkari bat. Institutu bakoitzaren arautegian zehaztuko da ordezkarien kopurua, gehiago izan ahalko baitira.

10. artikulua.–UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak unibertsitatearen beraren ikerketa institutu-turen batean sartzea.

1.– UPV/EHUko irakasle edota ikertzaile doktoreek unibertsitatearen beraren ikerketa institutu batean sartzeko eskaria aurkeztu ahal izango dute, baldin eta parte hartzen badute zientziaren, teknikaren eta giza zientzien alorreko ikerketa proiektuetan nahiz arte sorkuntzaren alorrekoetan, edo institutuko ikastaro eta ikasketen antolakuntza eta burutze lanetan.

2.– Errektoreak edo hark bere ordezkari izendatzen duen pertsonak eman beharko du baimena UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile doktoreak unibertsitatearen beraren ikerketa institutuaren sar daitezen, jasota kasuan kasuko Institutuko Kontseiluaren proposamena eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak alde aurretik egindako txostena. Era berean, kontuan hartu beharko du irakaslea edo ikertzailea atxikita dagoen sailaren txostena, loteslea izango ez den arren. Ikerketa institutu batean sartzen diren irakasleen irakats betebeharrak ez dira aldatuko, salbu eta kasuan kasuko sailak horren aldeko txostena egiten badu eta bermatzen badu du irakaslan hori sailak berak beteko duela, behar den kalitateari eutsita.

3.– Inola ere ez da emango baimenik UPV/EHUko irakasle edo ikertzaile doktore bat unibertsitateko ikerketa institutu batean baino gehiagoan sartzeko.

4.– Unibertsitateko ikerketa institutuak bost urtean behin eguneratu beharko dute institutuan dauden UPV/EHUko kideen zerrenda, institutuaren arautegia indarrean sartzen denetik hasita. Horretarako, institutuan lanean jarraitzen duten UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen berri eman beharko dio Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari. Egoki ikusiz gero, institutuan kide berriak sartzeko eskaria ere egin diezaioke.

11. artikulua.– Institutuari atxikitako lanpostuetako irakasle eta ikertzaile doktoreak.

1.– Ikerketa programak direla eta institutuari atxikitako lanpostu iraunkorretan jardungo duten irakasle eta ikertzaile doktoreak dagokien jakintza eremuan sartuko dira beti. Gainera, irakasle eta ikertzaile funtzionarioak sailetan sartu beharko dira, lan guztia unibertsitateko ikerketa institutuan egin arren.

2.– Lanpostu horietan dihardutenei kasuan kasuko programaren kargura ordainduko zaie, eta diru kopurua unibertsitatearen aurrekontuetan agertuko da.

12. artikulua.– Aldi baterako kontratatutako ikertzaileak.

1.– Unibertsitateak ikertzaileak kontratatu ahal izango ditu, unibertsitatearen beraren ikerketa institutuaren diruaz nahiz laguntzak jasoko dituzten proiektuetako diruaz, institutuaren zereginak bete ditzaten. Ikertzaile horiek dagokien jakintza eremuan jardungo dute.

2.– Halako kontratuak egiteko UPV/EHUK xedatuta dituen baldintzei eta jarraituko zaie.

13. artikulua.– Administrazio eta zerbitzuetako langileak.

1.– Bere eginkizunak aurrera eramateko, unibertsitatearen beraren ikerketa institutuak unibertsitateko lanpostuen zerrendan zehaztutako administrazio eta zerbitzuetako langileak izango ditu.

- 2.– Unibertsitateak administrazio eta zerbitzuetako langileak kontratatu ahal izango ditu aldi baterako, institutuaren zereginak aurrera eraman ditzaten, unibertsitateko ikerketa institutuaren diruaz nahiz laguntzak jasoko dituzten proiektuetako diruaz.
- 3.– Halako kontratuak egiteko UPV/EHUK xedatuta dituen baldintzei eta prozedurei jarraituko zaie.

*6. artikulua.– Kriminologiaren Euskal Institutuko ohorezko kideak.*

*1.– IVAC-KREIko ohorezko kide izendatzea pertsona fisiko edo juridikoek, pribatuek edo publikoek Kriminologiaren Euskal Institutuaren alde egindako lan eskerga aitortzeko bide da, eta zigor, kriminologia eta/edo biktimologiaren zientziaren arloan bikaintasunezko lana eginda institutuaren izen onaren alde lan egin dutenei ematen zaie ohore hori, bai eta IVAC-KREIlan egindako lan bikainagatik hala merezi dutenei ere.*

*2.– Ohorezko kideak izendatzeko proposamena ofizioz egin dezake IVAC-KREIko zuzendariak edo, bestela, IVAC-KREIko Kontseiluko kideen heren baten eskariari jarraituz; proposamenari pertsonaren edo erakundearen merezimenduak edo egindakoak erantsi behar zaizkio.*

*IVAC-KREIko Kontseiluak proposamena aztertu eta behar bezala arrazoituta dagoela iritziz gero, onartu egingo du; proposamena onartzeko, kontseiluko kideen gehiengo osoa behar da.*

*3.– Ohorezko kideek IVAC-KREIrekin daukaten lotura bakarra izaera horrek emandakoa da. UPV/EHUKo Ekitaldi Nagusiei buruzko aratuegiko 36. artikuluan jasotakoari jarraituz, liburua batean jasoko dira ohorezko kide izendatutakoak, eta horren berri emango zaio UPV/EHUKo Idazkaritza Nagusiari jakitun egon dadin eta jasota gera dadin.*

#### **IV. KAPITULUA. UNIBERTSITATEAREN BERAREN IKERKETA INSTITUTUEN EGITURA**

14. artikulua.– Gobernu eta ordezkari organoak.

- 1.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutuaren gobernu Institutuko Kontseiluari eta zuzendariari dagokie.
- 2.– Unibertsitateko ikerketa institutuaren gobernu, ordezkari eta administraziorako kide anitzeko organoa Institutuko Kontseilua da.
- 3.– Institutuko gobernu, ordezkari eta administraziorako kide bakarreko organoak zuzendaria eta idazkaria dira.

##### **1. ATALA. INSTITUTUKO KONTSEILUA**

15. artikulua.– Kontseiluaren osaera.

- 1.– Unibertsitatearen beraren ikerketa institutu bakoitzaren arautegiak zehaztuko du zelan osatuko den Institutuko Kontseilua eta zein eskumen izango dituen. Edozelan ere, zuzendaria eta idazkaria berezko kideak izango dira eta bermatuko da 9.1 artikuluan aipatutako kidego guztiek ordezkariak izango dituztela.
- 2.– Besterik adierazi ezean, honako hauek izango dira Institutuko Kontseiluko kide:
  - a) Zuzendaria eta idazkaria.
  - b) Institutuan ari diren irakasle eta ikertzaile doktore guztiak.
  - b) Institutuan prestatze bidean dauden ikertzaileen ordezkari bat.
  - c) Institutuaren diruaz kontratatutako ikertzaileen ordezkari bat.
  - e) Institutuari atxikitako edo institutuaren diruaz kontratatutako administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
  - f) Institutuko ikasleen ordezkari bat.

3. artikulua.– UPV/EHUKo Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 15.2 artikulua zehaztapena.

2.– Hauek dira Institutuko Kontseiluko kideak:

- a) Zuzendaria eta idazkaria.
- b) Institutuko irakasle eta ikertzaile doktoreen hamabi ordezkari, arlo guztiak ordezkatuta daudela bermaturik.
- c) Institutuan prestatze bidean dauden ikertzaileen bi ordezkari.
- d) Institutuaren diruaz kontratatutako ikertzaileen ordezkari bat.
- e) Institutuari atxikitako edo institutuaren diruaz kontratatutako administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- f) Institutuko ikasleen ordezkari bat.

3.– Ordezkariek Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorrari jarraituta aukeratuko dira.

4.– Institutuak irakasten dituen graduondoko ikastaroetako edo espezializaziora bideratutako ikasketetako ikasleen ordezkariak urtero aukeratuko dira, zuzendariek deituta abenduan horretarako egingo diren bileretan. Errolda ofizialetan agertzen diren ikasleak izango dira deituak bilera horietara.

5.– Irakasleen eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkarien agintaldia lau urtekoa izango da. Ikasleen ordezkarien agintaldia, berriz, bi urtekoa izango da.

6.– Institutuaren arautegian zehaztuko da zeintzuk izango diren prozedura eta epeak kide anitzeko organoko kideek beren eginkizunak aurrera eramateko beharrezkoak izan ditzaketen dokumentazioa eta informazioa eskatu eta eskura ditzaten. Besterik zehaztu ezean, kideek idatziz eskatu beharko dute nahi duten dokumentazioa. Eskarian adierazi beharko dute horretarako eskubidea dutela kide anitzeko organoko kideak direlako, eta labor azalduko dute zergatik behar duten dokumentazio hori beren eginkizunak bete ahal izateko. Eskatzaileak horretarako eskubidea daukala behin egiaztaturik, institutuak haren esku jarriko du dokumentazioa institutuko idazkaritzan, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean.

4. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 15.6 artikulua zehaztapena.

6.– Antzinaroko Zientzien Institutuko kideek beren eginkizunak betetzeko beharrezko dokumentazioa eta informazioa eskatu eta eskuratzeko eskubidea daukate. Horretarako, eskari idatzia aurkeztu beharko dute erregistroan institutuko zuzendariari zuzendua. Eskarian institutuko kideak azalduko du zergatik behar duen dokumentazio hori bere zereginak betetzeko. Eskatzaileak horretarako eskubidea daukala behin egiaztaturik, institutuak haren esku jarriko du daukan dokumentazioa institutuko idazkaritzan, eskaria jasotzen duenetik hamabost (15) egunera gehienez ere.

16. artikulua.– Ordezkariek izateari uztea.

Ordezkariek izatea norberari dagokion ezaugarria da eta ezin da beste inorengan utzi. Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoi:

- a) Heriotza, ezintasuna edo kargurako gaitasuna kenduta izatea.
- b) Hauteskundeak baliogabetzea.
- c) Agintaldia amaitzea.
- d) Dimisioa aurkeztea.
- e) UPV/EHUko kidea izateari uztea, edo hautatua izan zen kidegoko kidea izateari uztea.
- f) Bileretara behin eta berriro huts egitea, kasuan kasuko arautegiaren arabera. Arautegiak bestelakorik xedatu ezean, organoaren hiru bilerara segidan edo bost bilera soltera huts egitea justifikatu gabe.

2.– Organoa behin eratuta, hutsik geratzen diren plazak kasuan kasuko zerrendako ordezkoei beteko dituzte. Aipatutako irizpideari jarraitu ondoren bete gabe geratzen den plaza kopurua talde bateko kideen % 50 baino handiagoa bada, edo organoko kideen % 30 baino handiagoa, hauteskunde partzialak egingo dira. Modu horretara hautatutako ordezkari eginkizunak beteko dituzte ordezkatu beharreko kideen agintaldia amaitu arte.

15. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

2.– Hautetsiak kargua uzten duenean zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua. Ordezkapena astebeteko epean gauzatuko da, organoko idazkariak jakinarazi duenetik kontatzen hasita.

16. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

3.– Kide anitzeko organoko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsia izan ahalko da haren behin-behineko ordezkoa; horretarako, arrazoiak egiaztatzen beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira institutuko zuzendaritzan, kide anitzeko organoaren bilera baino gutxienez 72 ordu lehenago.

17. artikulua.– Institutuko kontseiluaren eginkizunak.

1.– Institutuko Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu, bere barne arautegian zehaztutako ez gain:

- a) Institutuko zuzendaria aukeratzea, beharrezkoa denean.
- b) Institutuaren urteko txosten ekonomikoa, urteko memoria eta eginkizunen plana onartzea.
- c) Berezko tituluak eta unibertsitateko beste ikasketak batzuk proposatzea, bai eta espezializazio programak eta bizitza osoko prestakuntza ere.
- d) Bitartekoak sortu eta ekimenak abian jartzea, institutuaren jardunaren kalitatea sustatu eta hobetzeko, baita kudeaketa eraginkorra bermatzeko ere Europako, Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko programen baitan.
- e) Irakasleen eta ikertzaileen ikerketa jarduerak eta ekimenak bultzatzea.
- f) Institutuko kideen eta gainerako langileen jardunari buruzko txosten arazoitua egitea.
- g) Lankide akademikoak eta ohorezkoak izendatzeko proposamenak egitea, indarreko arautegiari jarraiki.
- h) Institutuaren eskumenen esparruan, eta Gobernu Kontseiluak onartutako arautegiarekin bat etorruta, Estatutuak 97. artikuluan xedatutako kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren, giza zientzien edo artearen alorreko lanak egiteko.

2.– Orobat, honako eginkizun hauek ditu Institutuko Kontseiluak:

- a) Institutuaren arautegiaren proiektua edo arautegia aldatzeko proiektua onartzea eta, ondoren, Gobernu Kontseilura bidaltzea, hark (edo idazkari nagusiak eskuordetzaz), behin betiko onespena eman diezaion.
- b) Bere eginkizunak hobeto betetzeko egoki ikusten dituen lankidetzak hitzarmenak onartzeko proposamenak egitea Gobernu Kontseiluari.
- c) Institutuaren jarduerak ikastegiekin, sailekin eta UPV/EHUko beste institutuekin koordinatzeko programak onartzea.
- d) Institutuari izendatutako gune fisikoak esleitzeko irizpideak onartzea, beharrezkoa izanez gero.
- e) Administrazio eta zerbitzuetako langileei buruzko politikaren berri ematea. Politika hori Gobernu Kontseiluak onartuko du, errektorearen proposamenari jarraiki.
- f) Indarrean dagoen legeriak, UPV/EHUko Estatutuek eta horiek garatzeko arauak zehaztutako gainerako guztiak, baita eskuordetzen zaizkion gainerakoak ere.

5. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarriko Arautegiaren 17. artikulua zehaztapena.

1.– Institutuko Kontseiluaren eginkizunak dira:

- a) Institutuko zuzendaria aukeratzea, beharrezkoa denean.
- b) Urteko txosten ekonomikoa eta institutuak urteko memoria eta eginkizunen plana onartzea.
- c) Berezko tituluak eta unibertsitateko beste ikasketak batzuk proposatzea, bai eta



espezializazio programak eta bizitza osoko prestakuntza ere.

d) Beharrezko bitartekoak sortu eta ekimenak egitea, institutu etako jardunaren kalitatea sustatu eta hobetzeko, baita kudeaketa eragingarria bermatzeko ere Europa, Estatu eta Euskal Autonomia Erkidego mailako programen baitan.

e) Irakasleen eta ikertzaileen ikerketa jarduerak eta ekimenak bultzatzea.

f) Institutuko kideen eta gainerako langileen jardunari buruzko txosten arrazoitua egitea.

g) Lankide akademikoak eta ohorezkoak izendatzeko proposamenak egitea, indarreko arautegiari jarraiki.

h) Institutuen eskumenen esparruan, Gobernu Kontseiluak onartutako arautegiarekin bat, Estatutuetako 97. artikuluan xedatutako kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren, giza zientzien edo artearen alorreko lanak egiteko.

2.– Horrez gain, Institutuko Kontseiluaren eginkizunak dira:

a) Institutuaren arautegiaren proiektua edo arautegia aldatzeko proiektua onartzea eta, ondoren, Gobernu Kontseilura bidaltzea, hark (edo idazkari nagusiak eskuordetzaz), behin betiko onespena eman diezaion.

b) Bere eginkizunak hobeto betetzeko egoki ikusten dituen lankidetzak hitzarmenak onartzeko proposamena egitea Gobernu Kontseiluari.

c) Institutuaren jarduerak ikastegiekin, sailekin eta UPV/EHUko beste institutuekin koordinatzeko programak onartzea.

d) Institutuari izendatutako gune fisikoak esleitzeko irizpideak onartzea, beharrezkoa izanez gero.

e) Administrazio eta zerbitzuetako langileei buruzko politikaren berri ematea. Politika hori Gobernu Kontseiluak onartuko du, errektorearen proposamenari jarraiki.

f) Egoki diren batzordeak, lan taldeak, programak eta laguntzarako taldeak eratzea.

g) Eguzkiloreko Kontseilua eta gainontzeko arduradunak izendatzea. Kriminologiaren Euskal Institutuaren koadernoak.

h) Ohorezko kide izendatzea IVAC-KREIri emandako laguntzagatik hala merezi dutenak.

i) Ohorezko Batzordeko kideak izendatzea, batez ere, batzordeburua; IVAC-KREIko buru izena hartu ahal izango du, baina ordezkari edo aholkulari lanak baino ezin ditu egingo.

j) Delinkuentziaren, Bazterkeriaren eta Gizarte Harremanen Nazioarteko Ikerguneari (DMS International Research Centre) gestiorako laguntza ematea, funtzionala eta administrazio mailakoa, kalterik egin gabe hark bere funtziorako eta antolakuntzarako daukan autonomiari. Hori guztia Kriminologiaren Nazioarteko Elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak 1993ko otsailaren 17an sinatutako hitzarmenaren babesean.

k) Indarrean dagoen legediak eta UPV/EHUko Estatutuek zehaztutako gainerako guztiak, baita eskuordetzen zaizkionak ere.

18. artikulua.– Institutuko Kontseiluaren funtzionamendua.

Institutuko Kontseiluaren funtzionamendua institutuaren arautegian zehaztutakoa izango da. Bertan jasota ez dagoen guztirako, Sailen Oinarrizko Arautegiko IV. tituluko I. kapituluko hirugarren atalak dioena hartuko da kontuan («Kide anitzeko organoen funtzionamendua» izenekoak).

7. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 18. artikulua zehaztapena (bilera motak eta aldizkakotasuna).

1.– Bilerak ohikoak eta ez ohikoak izan daitezke.

2.– Deialdiak ohiko bileretarako egin behar dira, oro har. IVAC-KREIko Kontseiluak gutxien dela ohiko bilera bat egingo du sei hilabetean behin.

3.– Ezohiko bilera egingo da aztertu beharreko gaiak direla-eta hala egin behar denean, baita aplikatu beharreko arautegiak xedatutako kasuetan ere. Ezohiko bileretako aztergaien zerrendan ezin dira honako hauek agertu: aurreko akten onespena eta galde-eskeak.

4.– Presazko bilerak ezohikoak dira eta deia gutxienez 24 ordu lehenago egin behar da.

*Halakoetan, bilera egiteko arrazoia benetan premiazkoa dela berretsi beharko da bileraren hasieran. Berresten ez bada, bilera bertan behera geratuko da besterik gabe.*

*8. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 18. artikulua zehaztapena (bilerarako deia).*

*1.– IVAC-KREIko idazkariak egingo ditu kontseiluaren bilerarako deiak zuzendariaren aginduari jarraituz. Dena dela, IVAC-KREIko Kontseiluko kideen heren batek hala eskatzen badu, bilerarako deia egin beharko da. Bilera ezohikoa izango da eta, gehienez ere, zazpi egun balioduneko epean egingo da, eskaera egiten denetik kontaktzen hasita.*

*2.– Bilerarako deia IVAC-KREIko idazkariak bideratu behar du, aurrerapen nahikoaz eta, edonola ere, bilera baino hiru egun lehenago gutxienez. Bilera non egingo den, zein ordutan eta aztergaien zerrenda zehaztu behar ditu deian. Aztergai buruzko dokumentuak aurrerapen nahikoaz egon behar dira organoko kideen esku, eta, nolahi ere, bilera baino 48 ordu lehenago.*

*3.– Edonola ere, aztergaiak osatzen dituzten puntuak zehatz-mehatz jasoko dira deialdian. Puntu horien artean agertu beharko dira organoko kideen laurden batek, gutxienez, idatziz eta zazpi egun baliodun lehenago eskatutakoak. Ezin izango da hartu aztergaietan agertzen ez diren puntuak buruzko erabakirik, baina organoko kideen bi heren baino gehiago badaude bileran, eta botazioa egin ondoren gehiengo osoak gaia premiazkoa dela uste badu, erabakia hartu ahal izango da.*

*4.– Deialdia jendaurrean jarri behar dira, IVAC-KREIko kide guztiek izan dezaten haren berri.*

*9. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 18. artikulua zehaztapena (Kontseilua eratzea).*

*1.– IVAC-KREIko Kontseilua balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Lehenengo eta bigarren deialdiaren artean ordubeteko tarte utzi behar da. Edonola ere, organoetako buruak eta idazkari akademikoak beti egon behar dute edo, bestela, euren ordezkoez.*

*2.– Kontseiluko kideek beste kide bati eskuordetu ahal izango diote, berriaz, botoa. Kide anitzeko organoko kideek boto bakar bat izan dezakete eskuordetuta. Kontseilua eratzeko quorumari dagokionez, ez dira kontuan hartuko eskuordetutako botoak. Kontseiluko kideek idatziz adierazi behar dute botoa eskuordetu egin dutela, eta idatzi hori bilerako aktari erantsiko zaio.*

*3.– Kontseilua bigarren deialdian eratzeko beharrezko den quoruma bozketa guztietan izango da beharrezkoa.*

*10. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 18. artikulua zehaztapena (Bileraren nondik norakoak).*

*1.– Kontseiluko buruak bermatu egin behar du bilera behar bezala burutuko dela, eta, arrazoirik egonez gero, bertan behera uzteko erabakia har dezake.*

*2.– Eztabaidak aztergai jarraituz egin behar dira. Dena dela, beharrezkoa izanez gero, IVAC-KREIko Kontseiluak bileraren ordena aldatzea erabaki dezake bilerako buruak egindako proposamenari jarraituz.*

*3.– Buruak, beharrezko ikusten badu, eztabaidaren denbora mugatu ahal izango du, bai eta gaiaren botazioa egin aurretik egon daitezkeen parte hartzeen kopurua ere.*

*4.– IVAC-KREIko Kontseiluko kideek euren botoa eta horren azalpena agerraraz dezakete aktan, eta azalpen hori idatziz eman behar dute bozkatzean. Bozkatutakoak unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto partikularrak beti aurkeztuko dira proposamenekin batera.*

*5.– Kontseiluko buruaren iritziz egokia bada, kide ez diren pertsonak gonbida ditzake bilerara, aztergaien punturen batekin zerikusia duen iritzia edo informazioa eman dezaten. Gonbidatuak ez dute botoa emateko eskubiderik izango, eta aktan jasota geratu beharko da bileran gonbidatuak izan direla.*

11. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 18. artikulua zehaztapena (Bozketa).

1.– Erabakiak hartu ahal izateko, emandako boto baliodunen artetik gehiengo soila behar izango da, Estatutuek, arautegi honek edo gainerako lege xedapenek beste gehiengoren bat eskatzen duten kasuetan izan ezik. Beraz, proposamen bakarra dagoenean, aurrera egingo du kontrako baina aldeko boto gehiago lortzen baditu. Bi proposamen badaude, aldeko boto gehien lortzen dituen onartuko da. Proposamenak bi baino gehiago direnean, emandako botoen gehiengo lortzen duena onartuko da; edo, lehenengo botazioan boto gehien lortu duten bi proposamenak hartuta, bigarren botazioan boto gehien lortzen duena. Berdinketa izanez gero, berriro egingo da botazioa; eta hala ere berdinketa izanez gero, buruaren kalitate-botoak erabakiko du.

2.– Botazioek isilpekoak izan behar dute kide anitzeko organoko kideren batek hala eskatzen badu. Dena dela, botazioek beti izan behar dute isilpekoak pertsona buri buruzkoak badira.

3.– Aurkako botoa ematen dutenek eta horretarako arrazoia azaldu, ez dute erantzukizunik izango kontseiluak hartutako erabakietan. Botazioa isilpekoa denean, interesdunak botoaren arrazoia azaltzen duen testua eman behar dio organoko idazkariari boto txartelarekin batera botazioko unean. Boto txartela eta testua aktari erantsi behar zaizkio. Era berean, ez dute erantzukizunik izango botazioan abstenitu egiten direnek.

12. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 18. artikulua zehaztapena (Bileraren akta).

1.– Idazkariak bilerako akta egin behar du. Akta bileran bertan edo hurrengoan onartu behar da, eta aktaren zirriborroa hurrengo bilerako gai zerrendari dagozkion dokumentuekin batera banatuko dira. Akta, onartu ostean, idazkariak sinatu behar ditu eta organoko buruak onartu eman.

2.– Aktan honako hauek jaso behar dira nahitaez: bilerara etorri direnen zerrenda eta azalpena emanda bilerara etorri ez direnen edo bilera amaitu aurretik alde egin dutenen berariazko aipamena; aztergaiak; bilera non eta zein ordutan egin den; bileran aztertutako puntuak; botazioak nola egin diren eta emaitzak; hartutako erabakien edukia eta, egoki joz gero, arrazoiak azalpen laburra.

3.– Aktetan boto partikularrak ere jaso behar dira, kasuan kasuko kide anitzeko organoetako kideek hala eskatzen badute. Kide anitzeko organoko kideek euren parte-hartzea edo proposamena aktetan hitzez hitz jasotzeko eskatu ahalko dute. Horretarako, idatziz aurkeztu behar dute eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak adierazitako epean.

4.– Kide anitzeko organoko kideek aktan aldaketak egiteko proposamenak egin ditzakete akta onartzeko unean. Idazkariak egiaztatu egingo ditu proposatutako aldaketak eta, gehiengoak aldeko botoa ematen badu, onartu egingo dira.

5.– Kide anitzeko organoa aldatu baino lehen, bilera egin beharko da onartzeke dauden akta guztiak onartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa bada, akten zirriborroak bidaliko zaizkie kide anitzeko organoko kide zirenei, eta hamar eguneko epea eman edukiari buruzko erreklamazioak egin ditzaten. Esandako epearen barruan erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, aktak onartuzat emango dira; erreklamaziorik aurkeztuz gero, berriz, kide anitzeko organo berrituenean hurrengo bileran onartu beharko dira.

6.– Aktak, behin onartuta, IVAC-KREIko kide guztiei banatuko zaizkie posta elektronikoko bidez, eta idazkaritzan gordeko dira guztien eskura jarrita; edozelan ere, datuak babestearen arloko indarreko araudia bete beharko da. Posta elektronikoa erabiltzerakoan, aintzat hartu beharko da azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 45. artikuluan zehaztutakoa.

13. artikulua.– UPV/EHUko Ikerketa Institutuen Oinarrizko Arautegiaren 18. artikulua zehaztapena (erabakiak argitara ematea).

1.- Idazkariak kide anitzeko organoak hartutako erabakien fede eman eta ziurtagiriak egingo ditu.

2.- Organoak hartzen dituen erabakiak IVAC-KREIko iragarki oholean emango dira argitara, beranduen jota hiru egun balioduneko epean eta, betiere, datuak babesteko legeriak dioena errespetatuta.

3.- Aipatutakoaz gain, pertsonei buruzko erabakiak interesdunei jakinarazi behar zaizkie. Erabakiek jakinarazpena egiten den unetik aurrera izango dute eragina, eta jakinarazpenak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako moduan egin beharko dira.

